

ALKATEAREN ERABAKIA
(2024SUEU0002 espedientea)

Entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak 2024 espedienteari **dagokionez**,

Ondorengoak kontutan hartuta:

Alkateak 2024ko dirulaguntza emateko deialdi bateratua onartu du 2024ko martxoaren 25eko Irungo Udaleko Alkatetzaren 371. ebazpenaren bitartez eta GAOn argitaratu da 2024ko apirilaren 11n.

Onartutako deialdi bateratuaren berariazko 27. zenbakidun eranskinean *Dirulaguntzak entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko* dirulaguntza dago 1 1010.481.01.335.20 aurrekontu aplikazioari lotuta dagoena eta A-604/2024 agiri kontablearen kargura finantzatzen dena.

BDNSko 751165 identifikazio zenbakiarekin erregistratu eta gero, deialdi honen laburpena, 2024ko apirilaren 11n argitaratu zen GAOn (70 zk).

Gogoan izanik:

Deialdian zehaztu bezala, interesatuek, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea izan dute dirulaguntza eskaria egiteko.

Epe horretan 27. zenbakidun eranskineko dirulaguntza lerroan ez da eskaririk jaso.

Ikusirik espedientean jasota dagoen dokumentazioa, zera

ERABAKI DUT

- 1. 2024ko dirulaguntzen deialdi bateratuaren berariazko 27. zenbakidun eranskineko entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza lerroa bete gabe uztea.***
- 2. 2024an entitate pribatuei euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntza lerrorako, 1 1010.481.01.335.20 aurrekontu aplikazioari lotuta dagoen A 604/2024 agiri kontablean gordetako 4.700 euroei baja ematea.***
- 3. Honako ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du. Honen aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jar dezakezu, kontentzioso-administratiboa jarri baino lehen, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian zuzenean inpugnatu, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egoki irizten den beste edozein aurkeztetik at.***

Irun, ebazpenaren sinaduraren egunean

ALKATEA,